


IZAN NAHI DUGUN IBAIA

Hurbileko elkarrizketa Euskadiko bakearen
aldeko eragileen artean



Ehunberri Koaderno 2
2014-2015eko negua

Esker onak

Beren ezaguerekin eta gogoarekin lan honi bide eman dioten pertsona eta elkarte bakezale guztiei eta, batik bat, Euskadiko Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzarako Elkarteen Foroa osatzen dutenei.

Hirugarren pertsonak argitalpen honetako edukia banatu, kopiatu edo erakuts dezakete, betiere jatorria aipatzen badute. Alabaina, ezin da merkataritza-helburuetarako erabili.

Egilea:

Xavier Mínguez Alcaide

Itzulpenak:

Euskaigintza Bulegoa Itzulpenak

Diseinua eta maketazioa:

Otzarreta Komunikazioa (Zarautz)

Edizioa:

DSS2016

ISSN:

2444-8311

Izan nahi dugun ibaia.

Hurbileko elkarrizketa

*Euskadiko bakearen aldeko
eragileen artean.*

Donostia 2016z Bakearen Itsasargia

Ehunberri: espazioak eta elkarguneak gizarte ehun berri baterako, arloko azterlanen inguruko ikerketa psikosoziala da, eta Donostia 2016 Fundazioak, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gune Irekiak taldeak sinaturiko hitzarmena dela-eta abiarazi da.

Ehunberri ikerketaren bidez, bakeari ekarpena egin eta Euskadiko gizarte-egitura berreraiki nahi da, jakintza, partaidetza eta elkarriketa oinarri hartuta. Ehunberri-ren diseinuak gatazken eraldaketa sistemikoaren ikuspegi psikosozialari jarraitzen dio. Ikuspegi horren arabera, garrantzitsua da bakearen arloko eragile gakoek parte hartzea, honako hauek ardatz harturik: inklusibotasuna, konpromiso kritikoa eta eraikitzailea, sormenaren eta irudimenaren sustapena, eta alderdi ugariko elkarriketa. Era berean, Ehunberri proiektuarekin, bakearen alde diharduten gizarteko sektoreak ahaldundu nahi dira, haien ezaguera, balio eta nahiei indarra emanez.

Ikerketaren zuendaritza eta koordinazioa

Xavier Mínguez Alcaide
Psikologian doktorea
Gune Irekiak


Antolaketa eta finantzaketa

Bakearen Itsasargiaren arduraduna
Donostia 2016 Fundazioa

Gainbegiralea

Ramón Alzate Sáez de Heredia
Gatazken konponbidean katedraduna
UPV/EHU

guneirekiak
INTEGRACIÓN Y TRANSFORMACIÓN SOCIAL



DSS2016.EU

aman ta zabal zaku

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

IZAN NAHI DUGUN IBAIA!

BAEEM Euskadin bakea eraikitzearen alde lan egin duten gizarte-erakunde eta mugimenduen taldea da, eta Izan nahi dugun ibaia! BAEEMekin (*Movimiento de Organizaciones Vascas por la Paz*¹/*Bakearen Aldeko Euskal Erakundeen Mugimendua*) eginiko prozesuaren emaitzarekin osatutako bigarren Ehunberri koaderno da. Prozesu honen lehen fasean, zenbait topaketa egin ziren hainbat erakunderekin, eta bertan bakearen alde egin dituzten ekintza nagusiak ezagutzeko parada izan genuen, baita erakunde-taldeak eginiko lanari buruzko euren balorazioa ezagutzekoa ere². Hori zen, hain justu, lehen fase horren helburua, hots, euskal gizarteko hainbat erakundek Euskadin bakea eraikitzeke gauzatutako egitasmo, proposamen eta ekintza nagusiak argitara ateratzea.

Topaketa horietan, erakundeak estimazio-elkarrizketa egiteko eremu batean parte hartzera gonbidatu zituzten, batetik, mugimenduaren beraren balorazioan sakontzera; bestetik, ikuspegi bateratu bat sortzera BAEEMek berak bakearen alde aurrerapausoak egin ahal izateko, eta, azkenik, ekintza zehatzak proposatzea. Gai horiek jorratzeko, eta euskal elkarte bakezaleen ahalduztzearen alde egiteko, Estimazio Ikerketa elkarrizketa-tresna erabili zen topaketan.

Ehunberri koaderno honetan, topaketan erabilitako elkarrizketa-tresnaren (Estimazio Ikerketa) esparru teoriko laburra eta dinamikaren elementu nagusiak azaltzen dira, bai eta topaketako lehenengo hiru faseei (*Aurkikuntza, Ametsa eta Diseinua*) dagozkien emaitzak ere. Topaketaren azken fasean (*Helmuga*) jorratutakoari dagokionez, oinarritzko elementuak azalduko dira soilik; izan ere, proposatutako ekintza batzuk Donostia/San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiriburuaren Bakearen Itsasargiaren esparruan ezar daitezke.

Topaketaren emaitzak testu honetan aurkezten dira eta horiek osatzeko, parte-hartzaileek sortutako materiala eta bideratzailak hartutako oharra hartu dira oinarri. Topaketen emaitzen zirriborroa egin ondoren, berriro bidali zitzaizen parte-hartzaileei, ekarpen berriak egin zitzaizkien, eta horietako zenbait gaineratu zitzaizkien dokumentuari.

¹ BAEEM, Bakearen Aldeko Euskal Erakundeen Mugimendua, koaderno honetan jasotzen den topagunean parte hartu zutenek horrela izendatu zuten bakearen aldeko mugimendua.

² Ikusi Ehunberri koaderno 1 zk.: Nukleo positiboa.

ESTIMAZIO IKERKETA



Federico Varonak³ dioen moduan, Estimazio Ikerketa (hemen-dik aurrera, EI) “bizitzeko eta izateko era berri bat da”. Aldaketa helburu duen gizarte- prozesu bati estimazioaren bitartez aurre egiteko, gu garen horren elementu positiboak erdian jarri behar ditugu, hau da, gure arrakasta eta gure lorpenak ahalbideratu dituzten haiek goratuz. Elk, aingura *gisa garen horren ezaugarri positiboena* erabiliz, animatzen gaitu nahi dugun etorkizuna elkarrekin irudikatzen eta eraikitzen. Egilearen arabera, EI tresna moldakor, metodo erabilgarri gisa aurkezten zaigu, hainbat xede eskuartzeko, besteak beste, honako hauetarako: erakundeetan eta komunitateetan aldaketak sustatzeko, taldeen eta erakundearen artean bat etortzen laguntzeko, komunitate-garapena errazteko, taldeen edo lantaldeen garapena sustatzeko, norbera zein pertsonen arteko harremanak eraldatzen laguntzeko, bai eta kontzientzia aldaketak eragiteko ere, gizadiari eragiten dioten arazo globalei dagokienez.

El modu alternatibo bat izan daiteke gure erakunde eta komunitateak ikuspegi zabalago batetik, hau da, erakunde eta komunitate horiek oso-osorik hautemanda, eraikitzen eta hobetzeko. Tradizioz, erakundeek edo komunitateek aldaketarako beharra dutenean, hausnarketa-prozesu kolektiboak egin ohi ditugu. Horiek, baina, kontu negatiboetan oinarritu ohi dira gehienetan, hau da, funtzionatzen ez duen horretan, kontu positiboetan edo lorpenetan oinarritu beharrean. Arreta osoa arazoetan eta oztopenetan edo geldiarazten gaituen horretan jartzen badugu, aldaketa-prozesua negatibo bihurtuko da. Egoera baten ikuspegi oso eta konplexua izateko, hura osatzen duten elementu guztiak hartu direla kontuan, baita negatiboak ere, eta batez ere euren arteko lotura. Baieztapen horrek planteatzen digu *osotasuna zati guz-*

³ Varona Madrid, F. (2009). *La intervención apreciativa: una manera nueva, provocadora y efectiva para construir las organizaciones del siglo XXI*. Barranquilla: Ediciones Uninorte.

tien batura baino gehiago dela ⁴. Hala ere, Elk beste abiapuntu bat eta beste ustezko batzuk proposatzen dizkigu arazoetara beste modu batera hurbiltzeko, gure komunitate eta erakundeak alde positiboen bidez eraldatzeko erabilgarri izan daitezkeen beste planteamendu bat.

Lanerako tresna eta filosofia gisa, Elk printzipio teoriko batzuk ditu. Hau ez da horietan sakontzeko tokia, baina garrantzitsutzat jo dugu zertzelada batzuk ematea, elkarrizketa-tresna horren ikuspegi zehatzagoa eta zabalagoa izateko.

Estimazio-metodologian barneratzeko testurik garrantzitsuetako bat James D. Ludemarena eta haren laguntzaileena⁵ da; bertan, bost zutabe nagusi daudela esaten dute. Lehenik eta behin, esaten dute Elk jarrera *konstruktibista hartzen duela gizartearekiko*; izan ere, kolektibo bateko kideen arteko elkarrizketa horizontala bidez errealitate sozial bat eraikitzen da, antolaketa- eta talde-jarduerak, egiturak, estrategiak eta prozesuak sortzen dira, bai eta errealitate soziala ulertzeko eta horri aurre egiteko ikuspegiak, jarrerak eta balioak ere. Bestalde, adierazten dute *El errealitateari estimazioz heltzeko modua dela*; hau da, fokua norberaren izaeraren eta ekintzen alderdi positiboetan jartzea dela, eta, hala, Elk amesten dugun etorkizuna kolektiboki pentsatzen eta izan nahi duguna diseinatzen laguntzen digula, haraino taldearen harrotasunaren eta sormen kolektiboaren bidetik iristeko.

Hirugarrenik, adierazten dute El oso erabilgarria dela *ikerketa etengabearekin konpromiso* bat dagoenean; ulertzen baita giza komunitateak fokua jartzen duten gaien norabidean hazten direla, modurik aktibo, iraunkorrenean. Laugarrenik, *El interes kolektibo maximoa bilatzeko tresnatzat jotzen dute*: izan ere, pertsonak amets partekatu bat eta etorkizun ideal bat eraikitzeko euren ideiak, zirrara eta sormena martxan jartzen dituzte, eta bide hori ibiliko dute. Azkenik, diote garrantzitsua dela *balioetan oinarritutako antolakuntza diseinatzea*. Balio horiek politiketan, egituretan, sistemetan eta antolakuntza-estrategietan islatu behar dira, bai eta rolen banaketa bat edo beste lidergo mota bat nabarmen egingen diren harreman-sistemetan ere.

Halaber, Federico Varonak⁶ ere konstrukzionismo sozialaren garrantzia azpimarratzen du. Varonak esaten du elkarrizketa sortzaile eta irudimentsuak direla oinarritzko bidea antolakuntza- eta komunitate-eraldaketa batean sakonduko duen jakintza berri bat sortzeko. Horri lotuta, adierazten du garrantzitsua dela hizkera

⁴ Morin, E. (1995). *Introducción al pensamiento complejo*. Gedisa, 2009.

⁵ Ludema, J. D., Whitney, D., Mohr, B.J. y Griffin, T. J. (2003). *The Appreciative Inquiry Summit. A practitioner's guide for leading large-group change*. San Francisco: Berrett-Koehler.

⁶ Varona Madrid, F. (2009). *La intervención apreciativa: una manera nueva, provocadora y efectiva para construir las organizaciones del siglo XXI*. Barranquilla: Ediciones Uninorte.

positiboa erabiltzea narratiba kolektiboak sortu eta, hala, nahi dugun etorkizuna eratzeko. Pentsamendu positiboak, Scott W. Ventrellaren ⁷ planteamenduaren eta, jarraian, Varonaren arabera, "lau botere" ditu: *desiratzen den horretan zentratzeko boterea* du, nork bere buruan eta ingurukoengan duen fedean oinarrituta, eta lehentasunetan eta helburuetan arreta jarriz eta zintzo jokatuz; horrez gain, *dinamizatze*ko boterea du, hau da, izaki indibiduala eta kolektiboa optimismoz eta gogo beroz osorik aktibatzeak; *jarduteko boterea* ere bai, erabakiak adorez, erabakitasunez eta konfiantzaz hartuz; eta, azkenik, ezustekoak eta geldidunak pazientziaz eta lasai *kontrolatzeko boterea*.

Era berean, Varonak⁸ iradokitzen du Elk 8 printzipiori jarraitzen diela: a) *aldiberekotasunaren printzipioa*: esku-hartzea eta aldaketa aldi berean gertatzen diren fenomenoak dira; b) *printzipio poetikoa pertsonak*, komunitateak eta giza antolakuntzak etengabe ari dira (berr)eraikitzen; c) *printzipio imajinario/aurreratzailea*: etorkizuneko irudi positiboak partekatzeak norabide horretan aurrera egiteko duen indarra; d) *printzipio positiboa*: erakunde edo komunitate baten ezaugarri positiboetan arreta jartzean, era berean, indarra ematen du desiratzen den etorkizuna sortzera bideratutako ekintza positiboak egiteko; e) *galderaren boterearen printzipioa*: estimazio-galderak edo galdera positiboak gaitasun estimulatzailea du errealitateari aurre egiteko pentsamolde berriak sortzeko; f) *sinergiaren printzipioa*: erabakiak hartzean beharrezkoa da bertan dauden pertsona guztiek parte hartzea, eztabaida kolektiboaren bidez; g) *ereduak duen boterearen printzipioa*: aldaketaren ideia eta desiratzen den etorkizuna zereginetan islatu behar da, hau da, aldaketarako ekintzak berak desiratzen den aldaketaren isla izan behar du; eta h) *aukeratzeko askatasunaren printzipioa*: konpromisoa eta ekintza eraginkorra handiagoak izan daitezke pertsonen eta kolektiboen zeri buruzko ekarpenak egin nahi dituzten eta ekarpen horiek nola gauzatu nahi dituzten erabakitzen dutenean.

Elkarrizketa baten oinarriko egitura Estimazio Ikerketan

El aldaketaren eta eraldaketaren zerbitzura dagoen filosofia praktikoa da, bidaia bat, eta bidaia horrek lau zati ditu. Zati horiek zehazteko hainbat aukera daude, James D. Ludemaren eta laguntzaileen⁹ esanetan. Lan honen esparru teorikoa osatzeko erreferentzia gisa erabili ditugun bi obretan oinarrituz, atal honetan, oro har, Elk definitzen duten lau zatiak azalduko ditugu, alegia: *Aurkikuntza*, *Ametsa*, *Diseinua* eta *Helmuga*. Elren lehen

⁷ Ventrella, S.W. (2001). *The power of positive thinking in business*. Nueva York: Free Press.

⁸ Varona Madrid, F. (2009). *La intervención apreciativa: una manera nueva, provocadora y efectiva para construir las organizaciones del siglo XXI*. Barranquilla: Ediciones Uninorte.

⁹ Ludema, J. D., Whitney, D., Mohr, B.J. eta Griffin, T. J. (2003). *The Appreciative Inquiry Summit. A practitioner's guide for leading large-group change*. San Francisco: Berrett-Koehler.

pausoa erakundearen edo komunitatearen onena aurkitzea da (Aurkikuntza); ondoren, desiratzen den etorkizuna amesteko (Ametsa), izan nahi duguna irudikatzeko (Diseinua) eta, azkenik, desiratzen dugun etorkizun horretarako hurbiltzeko zein ekintza ezarri nahi ditugun erabakitzeko (Helmuga).

Aurkikuntza

Aurkikuntzaren fasean, esku-hartzea positiboki eta estimazioaren bitartez da; esku-hartze horretan *erakundearen edo komunitatearen onenari* erreparatu behar diogu, eta, era berean, hori izango da Elren hurrengo hiru etapen (Ametsa, Diseinua eta Helmuga) oinarria. Aurkikuntza fasean, estimazio-elkarrizketak egiten dira, normalean.

Bikoteka edo talde txikitan, parte-hartzaileek erakundearen edo komunitatearen arrakasta izan duten jarduerak, esperientziak, ideiak edo prozesuak aipatuko dituzte. Behin erakundearen edo komunitatearen alderdirik positiboak identifikatuta, bikote edo talde bakoitzak elementurik garrantzitsuenak aukeratuko dituzte. Horren ondoren, bikote edo talde guztiak bildu, eta parte-hartzaile guztien aurrean identifikatutako alderdiak azalduko dituzte. Bikote edo talde bakoitzak adierazitakoak sortuko du, Federico Varonaren hitzetan¹⁰, erakunde edo komunitatearen *Nukleo Positiboa*.

Ametsa

Ametsa banakoari, taldeari edo komunitateari sormenerako egiten zaion deia da, hau da, etorkizuna nolakoa izatea nahi dugun imajinatzea. Ametsaren helburua da erakundearen, komunitatearen eta elkartearen etorkizuna edo alderdi bat *nolakoa izatea nahi dugun* imajinatzea, betiere Nukleo Positibotik abiatuta, hau da, Aurkikuntza fasean identifikatutako alderdi onenetik abiatuz eta idealak eta imajinazioa erabiliz.

Ametsa eraikitzeko, banakotik kolektibora doan segida bati jarraitzen zaio. Nukleo Positiboko elementuak identifikatu ondoren, kolektiboko kide bakoitzak desiratzen duen etorkizuna imajinatuko du xehetasun osoz; horretarako, honako hauek galdetuko dizkio bere buruari: nolakoa nahiko nuke izatea? Zeintzuk dira nire desirak? Hala, parte-hartzaile bakoitzak hainbat gai, harreman, egoera, estrategia, egitasmo, eragin eta abar zehaztuko ditu eta etorkizunaren ikuspegi konplexu eta dinamikoa eraikiko du. Horren ondoren, parte-hartzaileak talde txikitan bilduko dira; taldeka daudela, banaka eraiki dituzten ametsak bat etortzeko bideak bilatuko dituzte eta, hala, taldearen ametsak eraiki. Taldeko amets edo "adostutako" amets horiek, sormena erabiliz aurkeztuko dizkiote kolektiboari, eta ondoren, eztabaida kolek-

¹⁰ Varona Madrid, F. (2009). *La intervención apreciativa: una manera nueva, provocadora y efectiva para construir las organizaciones del siglo XXI*. Barranquilla: Ediciones Uninorte.

tibo bat egingo dute ametsak aberasteko; hau da, eztabaida bat egingo dute gehien inspiratu dituen horren eta desiratzen duten etorkizuna ondoen adierazten duen horren inguruan. Elkarrizketa amaitzeko, dokumentu bat sortuko dute eta bertan adieraziko dute zer edo nolakoa nahi duten izatea erakundea, komunitatea edo elkarte.

Diseinua

Diseinuaren fasea erakundeak edo komunitatearen idealak nolakoa izan behar duen pentsatzeko ariketa bat da, proposatutako ametsa lortzeko izan nahi den hartan hausnartuz. Elren hirugarren etapa da konplexuena; izan ere, "arkitektura" sozial bat osatzen duten alderdi guztietan eta euren arteko harremanetan sakondu behar da, betiere kontuan hartuz erakunde edo komunitatearen alderdirik onena, hots, aurkikuntza fasean identifikatutakoa, eta

etorkizunerako nahi duguna, hots, Ametsaren fasean ezarritakoa. Diseinuaren lanaren helburua da izan nahi dugunari buruzko Proposamen Probokatzailleak sortzea, garenaren onena eta desiratzen duguna kontuan hartuz.

Proposamen Probokatzailleak egiteko, talde txikiek ametsa egia bihurtzeko behar diren kultura eta egitura faktoreak identifikatuko dituzte. Kultura faktoreak erakundea edo komunitatea gidatuko dituzten balioak, ezaugarriak edo gaitasunak dira; egitura-faktoreak, berriz, egiturei, lidergoari, erabakiak hartzeari, komunikazio-jarduerei eta egin beharreko jardueri dagozkionak. Hori eginda, taldeek erakundearen edo komunitatearen barnean sortuko diren harreman-gakoak identifikatuko dituzte, bai eta gizarte, kultur eta politika arloko eragileekin izango dituzten harremanak ere.

Behin alderdi horiek identifikatu ondoren, kolektiboak erabakiko du zein diren garrantzitsuenak, eta, horiek erabiliz talde txiki bakoitzak bere Proposamen Probokatzaillea, idatziko du. Izan nahi dugunaren definizioak idatzi ondoren, talde bakoitzak kolektiboaren aurrean aurkeztuko ditu. Hala, proposamenak aberasteko prozesu bat abiatuko da, eta pertsona guztiek adieraziko dituzte zein elementu diren oinarritzakoak izan behar duguna izateko eta, hala, gure ametsa lortzeko. Horretarako, bakoitzaren desirak ondoen adierazten dituzten indargune eta itxaropenak identifikatuko dira eta Proposamen Probokatzaille ezberdinetako elementu osagarri eta integratzaileak bilatu.

Destinua

Elren azken etapan erabaki beharko dugu *zein programa, ekintza, proposamen edo ekimen abiarazi behar diren errealitatean, ametsa eraikitzeko*, izan nahi dugunaren Diseinua kontuan hartuz. Horretarako, lehenik eta behin Amets kolektiboa eta Proposamen Probokatzaileak berrikusi behar dira, eta ikusi behar da zer desiratzen dugun eta nolakoak izan nahi dugun hori lortzeko; horrela, ondoren egin beharreko ekintza zehatzak proposatzen dira. Ariketa hori egin ostean, talde txikitik ekintza horiek zehatz-mehatz diseinatuko dira, eta honako hauek zehaztu: helburuak, edukiak, koordinazio-jarduerak, gidaritza erak eta parte hartzeko moduak.

Lantalde txikiek euren proposamenak diseinatu dituztenean, horiek bateratu egingo dira parte-hartzaile guztiekin batera, programa-agenda bat edo, are, proposamenak ezartzeko egutegi bat onesteko.

Elaren oinarritzko ezaugarriak eta pausoak laburki ikusi ondoren, BAEEMekin egindako topaketa aurkeztuko dizuegu.

EZTABAIDA TOPAKETA



Elko eztabaida Euskadin bakearen alde lan egiten duten gizarte-erakundeetako kideekin egin zen, eta hori Ehunberri proiektuaren lanaren lehen ardatzeko bigarren etapa izan zen, hau da, gizarte zibilak bakearen alde eginiko lana argitara ateratzea helburu duen eta horretarako lan egiten duten erakundeak ahaldundu nahi dituen etapa. Prozesu honen lehen etapan, gizarte zibilak bakearen alde ezarritako egitasmo nagusiak identifikatu ziren¹¹. Lehenengo fase honen ostean, 21 erakunde parte-hartzaileak Elko elkarrizketa-topaketan parte hartzera gonbidatu zituzten. Guztira 26 lagunek hartu zuten parte, Topaketa 2015eko otsailaren 27an eta 28an egin zen.

Otsailaren 27ko 16:00etan iritsi ziren gutxi gorabehera eztabaidan parte hartzeko gonbidapena onartu zutenak. Herreran, *Nukleo Positiboa*¹² lanaren ale bat eman zitzaion parte-hartzaile bakoitzari, eta bertan, sistematizatuta agertzen ziren gizarte erakunde bakezaleek Euskadin bakearen alde egindako egitasmo nagusiak, bai eta erakundeek beraiek erakunde-taldearen inguruan egindako balorazioa ere. Topaketa baino egun batzuk lehenago, dokumentua izena eman zuten erakundeei eta pertsoneri bidali zitzaien formatu digitalean, topaketaren lehen estimazio-elementu gisa.

Elkarrizketa-dinamikari hasieraa eman baino lehen, parte-hartzaileei tarte bat eman zitzaien elkar agurtzeko, aurkezpenak egiteko eta Nukleo Positiboari begiratu bat emateko. Pertsona askok ordurako elkar ezagutzen zuten, bakearen alde elkarrekin lan egin zutelako eta erakundeak kordinatzen diren espazio eta sareetan parte hartu zutelako.

¹¹ Ikusi *Ehunberri koaderno* 1 zk.: Nukleo positiboa.

¹² Lan-dokumentu honetatik atera da *Ehunberri koaderno*aren 1 zk.: Nukleo positiboa.

Hasiera batean, parte-hartzaileen kolektiboa aukietan eseri ginen, biribilean. Bakoitzak bere burua aurkeztu zuen, labur, eta, ondoren, Ehunberriren helburu orokorrak eta lan-ardatzak aurkeztu ziren ikerketa-proiektu gisa, parte-hartzaileek ikus zezaten zein esparrutan egin zuten lan gizarte-erakundeek. Ehunberri aurkeztu eta gero, Euskadin bakea lortzearen alde jarduten duten gizarte erakundeekin egin den lanaren ardatza aurkeztu zen labur, eta azpimarratu zen ordura arte egindako lana argitara atera behar zela, bai eta ahaldu ere. MVP (Most Valuable Player) metafora erabiliz, parte-hartzaileei eta erakundeetako kideei egindako lana aitortu zitzaien; euskal gizarteari egindako ekarpena eskertu zitzaien, gatazka eta indarkeria dela-eta gizarteak jasan duen polarizazioaren ondoriozko presioak eragindako oztopoak oztopo.

Aurkezpen labur horren ondoren, kolektiboari El zer zen azaldu zitzaion: oinarrizko ezaugarriak, lau etapak eta nola gauzatuko genituen. Hala, oro har azaldu zen bi eztabaida-jardunaldi horietan zer lan-agendari jarraituko zitzaion: otsailaren 27 (ostirala) arratsaldean, Aurkikuntza eta Ametsa faseak; otsailaren 28 (larunbata) goizean, Diseinua eta, arratsaldean, Helmuga.

Aurkikuntza. Zein dira BAEEMek Euskadin bakea lortzeko egin dituen ekarpen nagusiak?

El dinamika eta *Nukleo Positiboan* gauzatutako estimazio-lana egiteko denbora gutxi zegoenez, beste tresna bat erabiltzea erabaki zen estimazio-elkarrizketaren ordez, garen horren onena aurkitzeko. Kasu honetan, Adostasun Mailakatua teknika erabili zen: talde handietan ados jartzeko erabiltzen den tresna. Honetan datza dinamika: taldea bikotetan banatuko da, bi pertsonen artean adostasunak lortzeko. Bikote bakoitza ados jartzen denean, beste bikote batekin elkartuko da, eta laukotea bikote bakoitzak lortutako adostasun horretatik abiatuko da elkarrizketa bat eduki eta berriro ados jartzeko. Launakako bateratze horien ondoren, lau pertsonako talde bakoitza beste talde batekin elkartuko da, zortzi pertsonen artean ados jartzeko, lau taldeetan lortutako adostasunetik abiatuta. Dinamikak aurrera egin dezake, 16, 32 eta kopuru handiagoko taldeak sortuz, talde handietan adostasunak lortze aldera.

Kasu honetan, erabaki behar zen zein ziren BAEEMek Euskadin bakea lortzeko egin dituen lau ekarpenik garrantzitsuenak. Horretarako, ostiral arratsaldeko 24 parte-hartzaileak bikoteka bildu eta gelan zehar sakabanatu ziren, 12 bikoteen artean BAEEMek eginiko ekarpen nagusiak adosteko. Bikote bakoitzak bere eginkizuna bete ahala, aukietatik altxatu ziren beste bikote batek amaitu arte, lau pertsonako taldea osatzeko eta bikoteka lortutako adostasunetik abiatuz beste adostasun bat lortzeko. Guztira, lau pertsonako sei talde osatu zituzten. Sei talde horiek BAEEMek eginiko lau ekarpen nagusiak adostu zituztenean, zortzi pertsonako hiru talde egin zituzten, berriro ere ados jartzeko.

Zortzi pertsonako hiru taldeek BAEEMek eginiko lau ekarpen nagusiak adostu zituztenean, parte-hartzaile guztiok biribil handi batean eseri ginen eta talde bakoitzeko lagun bat bozeramaile aritu zen eta adostutakoak aurkeztu zituen. Hala, BAEEMek bakearen alde eginiko ekarpenen mapa zabal bat irudikatu ahal izan genuen; zehazki, honako hau:

Gizarte zibilak Euskadin Bakeari egin dizkion ekarpenik garrantzitsuenak ezagutzea

Bakearen aldeko euskal mugimendua osatzen duten erakundeek ez dute amorerik eman indarkeriaz, gatazkaz, beldurrez eta isiltasunez beteriko hainbat hamarkadatan zehar, eta ahalegin handiak egin dituzte denon artean egoera baketsu bat eraiki ahal izateko beren proposamenen, hitzaldien, mobilizazioen eta ekimenen bitartez. Urte luze hauetan zehar, eta nahiz eta misio, ikuspegi, helburu eta jardunbide desberdinak izan, BAEEM osatzen duten erakunde guztiek etengabe egin dute lan elkarrekin. Ahalegin horri esker, lanerako sareak eta ekimen nahiz ekintza bateratuak antolatu ahal izan dituzte, eta uneoro saiatu dira elkarbizitza eta adiskidetzeari sustatzen, biktimen ikusgarritasuna hobetzen –dagokien aitortpena eta ordaina jaso ahal izan dezaten– eta gatazka, indarkeria eta bakea ikuspegi desberdinetatik bizi izan dituzten pertsonen arteko topaketak ahalbidetzen.

Gizarte zibiletik bakea lortzeko lanean jardun duten pertsonak eta erakundeek jarrera baikorra eta aktiboa izan dute beti; ez dute amorerik eman nahiz eta herritar batzuek indarkeria politikoa ezkortasunez eta axolagabetasunez bizi izan zuten. Etengabe egin dituzte egitasmoak Euskadin bakea eta elkarbizitza oinarri dituen testuingurua lortzeko. Horretarako, pertsona eta erakunde horiek buru-belarri aritu dira lanean, askotan itzaletan. Horrez gain, garrantzi berezia eman diote eztabaidari eta hausnarketari tokia egiteari, eta bizi garen errealitate konplexua begi berriekin ulertzeko bidea ireki dute.

Interpelazio eta lobby sozial lan nekaezina egin dute bakearen alde, hala erakunde eta talde politikoei dagokienez nola herritar guztiei dagokienez. Argi eta garbi esan dute guztion ardurak dela bakea eta elkarbizitza oinarri dituen gizarte bat eraikitzea; izan ere, gai honek gizarteko kide guztioi eragiten digu. Erakundeek eta mugimenduek bakearen aldeko ekimen ugari egin dituzte, eta, horri esker, bakea gero eta gehiagotan txertatu da agenda publikoan, politikoan eta mediatikoan. Era berean, gizartea sentsibilizatzen lagundu dute, guztion artean elkarbizitzan oinarrituriko gizartea sortzeko urratsak eman ahal izateko, eta herritarren kontzientziak esnarazi dituzte, indarkeria mota guztien kontra ager daitezten.

Gizarte zibileko erakunde bakezaleek antolatu dituzten mobilizazioei eta ekimenei esker eta euskal gizartea irudikatzeko duten moduaren bitartez, euskal gizarte konplexua eta plurala irudikatu da; izan ere, gizarte horrek urte luzez bizi behar izan ditu indarkeria, gatazka eta immobilismoa. Egindako bidean, behin eta berriro nabarmendu da

hainbat pertsonak eta erakundek partekatzen duten errealitatea: ideia politiko, ideologia eta identitate desberdinak izan arren, indarkeria politikoa erabiltzearen kontrako jarrera irmoa hartu dute beti, eta zilegitasuna kendu diote indarkeria erabiltzeari.

Indarkeria gaitzesten duen eta bakea nahi duen gizarte-kontzientzia hori sortzeari esker, gizakion duintasuna eta giza eskubideak ezinbesteko balio bilakatu dira, ideologia politikoen gainetik dauden balio, hain zuzen ere. Hala, gizakion balioei eta norberaren zein taldearen etikari garrantzia emanaz, posible izango da politikarien erredukzionismoa gainditzea errealitateari aurre egiteko unean. Giza balioen gainean eraikitako gizarte-kontzientzia hau eratzeko, ezinbestekoa izan da indarkeriari zilegitasuna kentzeko bidean pausoak ematea eta helburuak eta metak lortzeko bide baketsuen aldeko apustua egitea. Halaber, kontu horien guztien erdian, biktimak babesteko eta haien mina ordaintzeko egin diren ekarpen eraikitzaileak daude; horretarako, nahitaezkoa izan da sufrimendua gizartean ikustaraztea eta jasandako minaren inguruko kontzientzia sortzea, indarkeria etorkizunean berriro errepikatu ez dadin.

Ametsa: nolako Euskadi / País Vasco / Euskal Herria nahi dugu 2026. urterako?

Ametsaren helburua Euskadik 2026an izan beharko lukeen egoera perfektua eraikitzea zen. Euskal errealitatearen inguruan hainbat iruditegi daude; horregatik, parte-hartzaileei eskatu zitzaizkien Euskadi, País Vasco edo Euskal Herria kontzeptuak erabil zitzatela Ametsa eraikitzeko.

Honelakoa izan zen dinamika: lehenik, abiapuntu gisa, nork bere ametsa eraiki zuen; gero, lau pertsonako taldetan taldeko ametsak eraiki ziren; hurrengo urratsa, guztien artean amets kolektiboa eraikitzea izan zen. Hasteko, pertsona bakoitzak 25 minutu izan zituen ametsetako Euskadi, País Vasco edo Euskal Herria irudikatzen; jarraian, parte-hartzaile bakoitzari gonbita egin genion ametsa bere pentsatzeko erara ondoen egokitzen zen hizkuntzaren eta formatuaren bitartez islatzeko (testu bat, poema bat, ipuin bat, marrazki bat, sinbolo bat...).

Parte-hartzaile bakoitzak bere ametsa bukatzen zuenean, lau taldetan elkartu ziren, bakoitzaren ametsak bilduko zituen taldearen ametsa eraikitzeko. Talde bakoitzeko partaideek beren ametsak azaldu zituzten eta, hortik abiatuz, Euskadi / País Vasco / Euskal Herria 2026an nolakoa izatea nahi zuten eztabaidatu zuten. Taldearen ametsa papelografo batean irudikatu zuten, eta, horretarako, hainbat formatu, irudi, eskema, sinbolo, metafora etab. erabili zituzten. Horren ondoren, talde bakoitzeko bozeramaileak gainerrako parte-hartzaileei azaldu zien irudikatutako ametsa. Jarraian, ametsak aberasteko dinamika bat egin zen; hau da, 2026rako nahi dugun Euskadik izan behar dituen elementu garrantzitsuenen inguruan eztabaida egin zen. Hona eztabaida horren ondorioz sortutako testua:

Ametsa: nolako Euskadi / País Vasco / Euskal Herria nahi dugu 2026. urterako?

Hau da gure ametsa: 2026an, euskal gizartea bakean biziko da, justizia soziala oinarri duen demokrazia batean. Gizarte horretan, ideiak eta proiektu politikoak era osasuntsu eta naturalean eztabaidatuko dira, mundu guztiak elkar errespetatuko eta aintzat hartuko duelako. Gizarte horretan, giza eskubide guztiak errespetatuko dira, baita zer etorkizun nahi dugun esateko eta erabakitze eskubidea ere.

Egia da indarkeria gizakion jokaeran behin eta berriro agertzen den elementu bat dela eta desberdintasuna, konplexutasuna eta desadostasuna gure gizartearen ezaugarriak direla; hala ere, elkarrizketa da etengabe aldaketa eta elkarbizitza eraikitze tresnarik garrantzitsuena, eta, horri esker, bakean, harmonian eta zorionsu bizi ahal izango gara.

Gure ametsa da 2026rako euskal gizarteak nahikoa urrats emanak izango dituela indarkeriaz blaitutako iragana gainditzeko, eta espero dugu prozesu horretan egia aurkitze nahia zutabe garrantzitsu bat izango dela. Gure ametsa da memoria historiko zuzendua, zauriak sendatzeko balioko duena, izango duen gizarte batean bizitzea. Gizarte horretan, mundu guztiak aitortuko ditu giza eskubideen urraketak; gure memoria kritikoa eta hausnarketan oinarritutakoa izango da, eta bizitako mina aitortuko dugu. Horri esker, iraganetik aske baina iragana ahaztu gabe bizi ahal izango gara, eta ziur jakingo dugu herri moduan bizi izan ditugun gertaerak eta jarrerak ez direla berriro errepikatuko.

2026ko gizartean, biztanle guztiek heziketa izango dute eta kritikoki pentsatzeko gai izango dira. Elkarbizitzaren oinarrian pertsona guztien duintasuna, askatasuna eta errespetua egongo dira. Gizarte horretan, demokraziaren balioak barneratuta izango ditugu, eta, horri esker, aniztasuna aberastasun gisa ikusiko dugu, herri gisa ditugun balioak babesteko eta eraikitze ezinbesteko tresna gisa, hain zuzen ere.

Amesten dugu une honetatik 2026ra bitartean gertatzen diren aldaketa guztiei esker gizarte zibil indartsua, aktiboa, parte-hartzailea eta arduratsua lortuko dugula. Espero dugu etorkizunean zauriak sendatuko direla eta elebitasuna benetakoa izango dela. Gure ametsetako gizartea herritar askeek osatuko dute, erabaki politikoetan zuzenean parte-hartzeko erak martxan jartzeko gai izango diren herritarrek; izan ere, horrela lortuko dugu politikek elkarbizitza, bakea eta justizia babestea.

Espero dugu 2026an euskal gizarteak kontzientzia kritiko kolektiboa izango duela, eta alde batera utziko duela fanatismoa. Gure ametsetako euskal gizartean bide baketsuen erabilera egongo da lortu nahi diren helburuen gainetik. Ametsetako euskal gizarte horretan, entzutea, elkar topatzea eta eztabaidatzea izango dira aldaketa ekarriko dutenak eta gizartea etengabe eraldatuko

dutenak. Gizarte horretan, aitortza, errespetua eta beste batzuk iritzi politikoei, jatorriari edo kulturari dagokienez desberdinak direla onartzea eguneroko elementuak izango dira, eta elkarlanari eta enpatiarri esker, indarkeria politikoa, aurreiritziak eta gizarte-etiketak alde batera utziko dira. Gizarte horretan, egindako mina aitortuko zaie biktimei, eta espetxe-politika berri bat izango dugu.

Gaur egun, tentsio-giro batek eramaten du arrastaka gizartearen gehiengoa, indibidualismoak, lehiakortasunak, konformismoak, mendekotasun harremanek, bestea ulertzeko ezintasunak edota pasibotasunak bultzatutako korronteek, hain zuzen ere. Horren aurrean guk honako hau amesten dugu: elkar ezagutu eta aitortzen duen euskal gizartea eraikitzea, guztiok elkarrekin bizi garen gizartea, berriro hasi eta elkarrekin herri izateko.

Diseinua: nolako izan nahi du/izan behar du BAEEMek amets hori egia bilakatzeko?

Diseinuaren fasea egiteko, lehenik parte-hartzaile guztien arteko eztabaida egin zen. Eztabaida horretan, bakearen aldeko euskal mugimendu bat benetan existitzen den aztertu genuen eta proposatu genuen ezinbestekoa zela Euskadin bakearen alde lan egiten duten erakundeek eratzen duten espazio sozialak nolako izan behar duen planteatzea. Horrez gain, partaideek adierazi zuten beharrezkoa zela kontuan hartzea hainbat erakunde desagertzearen ondorioz mugimendu horrek bizitako gainbehera, politikariek mugimendua tresna gisa erabiltzeko nahia edota erakundeek Euskadiko hainbat sektore sozio-politikorekin zituzten lotura politiko-ideologikoak, baita gizartean bakearen alde egiten duen lanean belaunaldi berrien parte-hartzea falta izatea ere. Era berean, zalantzan jarri zen egindako jarduera baliagarria eta beharrezkoa izan ote zen, baita emandako estimazio-ikuspuntua ere, parte-hartzaileei garrantzitsua iruditu baitzitzaien gizarteko erakundeek aurkitzen dituzten benetako zailtasunak kontuan hartzea.

Elkarrizketa hau Elaren Diseinua faseko dinamika aurkeztu ondoren sortu zen. Dinamika honako honetan datza: BAEEM osatu behar duten kultura- eta egitura-elementuak eta honek gizartearekin dituen harremanak identifikatzea, gero Proposamen Probokatzaileak egin ahal izateko.

Izan nahi dugun/izan behar dugun hori diseinatzeko jardueran, parte-hartzaileak sei taldetan antolatu ziren. Talde bakoitzak bere aldetik lan egin zuen, haien iritziz BAEEM nolako izan behar irudikatzeke, eta hainbat dinamika egin ziren mugimendu hori eratzeko zer elementu behar diren adosteko. Denbora faltaren eraginez, ez zen Proposamen Probokatzailearik sortu; horren ordez, talde bakoitzak BAEEMen, izan nahi dugunaren, diseinua aurkeztu zuen, eta gidariak ideia guztiak papelografo batean bildu zituen, aurkeztutako ideia gutzien ikuspegi orkorra izateko. Bukatzeko, eztabaida-gune bat ireki zen, taldean izan nahi dugunari buruz sortutako ideiak aberasteko.

Pentsa dezagun: nolako Ibaia izan nahi dugu?

BAEEMeko kideok barrura begira sentikortasuna duen gune bat eratu nahi dugu, eta, hortik abiatuz, geure buruak etengabe eta elkarrekin eraikitzen jarraitu. Gune hori gai izango da ingurune dinamiko eta aldakor batera egokitzeko, nor garen eta zer nahi dugun argitara ateratzeko, instrumentu huts bihurtu gabe eta besteei gu erabiltzen utzi gabe.

Bidean hainbat oztopo egongo dira; alde batetik, gizarte- eta politika-baldintzek jarritako oztopoak, erakundeen bizirautea bera gure helbururik premiazkoenatariko bihurtzen dutenak, eta, bestetik, erreferenteak edo itsasargiak galtzeak, Gesto por la Paz, Bakeaz, Elkarri, Lokarri eta halako erakunde enblematikoak desagertu egin direlako. Gure bidean ikusiko dugu gu zenbat eta ibai txikiagoa izan, oztopoak orduan eta handiagoak izango direla; gu ibai handia bagara, berriz, oztopoak txikitu egingo dira.

Errealitatera egokitzen den mugimendu dinamiko bat izan nahi dugu, gure mugimendua erreka bat, haren ibaiadarrak, ibilgua, bustitzen dituen ibaiertzak, garraiatzen duen emaria eta ibaiari dagokion sakontasuna izatea nahi dugu. Uraren ibilera guztiak elkartzen dituen ibaia izan nahi dugu; beste batzuk txertatzearen aldeko apustua egin eta aniztasunean sinetsi nahi dugu.

BAEEMen helburuak makrotik mikrora doaz: pertsona bakoitza barrutik aldatzea eta eraikitzea nahi dugu, gizartea eraldatu nahi dugu (hori baita guztiok dugun helburua), eta herritarrek dituzten beharrizanak eta hutsuneak bete nahi ditugu Horretarako, herritarrek parte hartzeko ideiak eta metodoak sortu nahi ditugu, ibaiaren ibilgua ahalik eta gehien bete nahi dugu, ibaiak gainezka egin arte. Barrura begirako prestakuntza eta sorkuntza guneak nahi ditugu eta behar ditugu; gune horietan prozesu berriak eta kanpora begira parte hartzeko eta ikasteko guneak sortu ahal izango ditugu eta, haien bitartez, herritar ahaldunduak eta arduratsuak eraikiko ditugu, errealitatea begi kritikoz aztertzeko gai direnak.

Gure lanaren oinarria etika pertsonala eta publikoa da; gizarte osoarekin dugun ardura onartzen dugu, eta ahal den neurrian adostasuna bilatzen dugu. Sinergiak sortu nahi ditugu eta elkarlanean jardun nahi dugu, pertsona edo erakunde bakoitzaren berezitasunetatik abiatuz, guztiok erdigunean elkartzeko. Garrantzi handiagoa eman nahi diogu prozesuari emaitzari baino, eta nabarmendu nahi dugu elkarrekin egindako etengabeko ikaskuntza. Toleranteak izan nahi dugu, akatsak egiteko dugun beldurrari aurre egiteko. BAEEM eratzeko, betaurreko guztietatik begiratu behar dugu; hau da, gure gizartea osatzen duten kultura eta diziplina anitzak elkartu behar ditugu.

Gaur egungo errealitateak hainbat mehatxu egiten dizkigu, baina guk espazio sozial bat izan nahi dugu, antolakuntza eta malgutasuna uztartzen dituen espazio bat. Elkar topatzeko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta koordinatzeko espazioak sortzea da gure

abiapuntua, hala testuinguru formaletan nola informaletan, pertsonak eta elkarrekin osorik eta zatiatan parte hartu ahal izan dezaten, edo, beste era batera esanda, mugimenduaren ibilbide osoan zehar edo pasarteren batean bakarrik parte hartu ahal izan dezaten.

Mugimenduak egitura sendoa baina aldi berean malgua izatea nahi dugu, jarioetasuna posible izan dadin. BAEEMen egiturak horizontala izan behar du, antolaketa egitura bortitzak sortzen dituzten eredu hierarkikoetatik urrun dagoena. Erabakiak hartzeko prozesuetan eta espazioetan gidaritzak horizontala erabiliz, balio handiagoa emango zaie norbanako guztiak ahalduz, rolak eta funtzioak txandakatzeari eta hala kolektiboan nola pertsona bakoitzarengan konfiantza dugula lan egiteari, erakundearen arteko lehiakortasuna eta jelskortasuna alde batera utzita. Hori dela eta, inguruko norberaren ideiak sinestartzeko jarrera inposatzailerik gabe lan egiteko espazio bat izan nahi dugu. Gure mugimenduan, hautsi egin da gure gizartearen ohikoa den dinamika atomizatzailea; izan ere, dinamika horren ondorioz, erakundeak, askotan, elkarrengandik banaturiko txokoetan bizi gara. Hala, topaketa ahalbidetzen duten espazioetan eraiki nahi dugu geure burua, eta pertsonen eta profesionalen arteko harreman baketsuak sortu nahi ditugu elkarlanaren bitartez. Gurean, ideologiak alde batera utzi dira, desberdina den besteak beste buruz ditugun aurreiritziak eta irudi okerrak gainditu ahal izateko.

Euskadin bakearen alde lan egiten dugun erakunde guztiok sortutako espazio sozial bat izan nahi dugu, elkarlanean oinarritzen diren eta sinbolismoan eta antolakuntzan indarkeriazko logikatik urrun dauden harremanak eraikitzearen garrantzia barneratu duen eta errealitate bilakatu duen espazio bat. Espazio horretan, harremanak errazak izango dira eta errespetua eta aniztasunaren onarpena izango dituzte oinarri. Baliabideen sare artikulatu bat eraiki nahi dugu, bertan guztiok ideiak, ekimenak eta proiektuak sakontzeko babes lortuko baitugu. Gainera, kolektibo bat izanik, laguntza eta babes emozionala eman ahal izango diogu elkarri, bakea eraikitzeko lanetan geure burua indartsu mantendu ahal izateko.

BAEEMek harremanak izan nahi ditu euskal gizarte osoarekin, herri-erakunde eta -administrazioekin (Udalekin, Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin), gizarte-eragileekin eta gizarte-erakundeekin nahiz eta Euskadin bakearen alde lan egitea ez den izan haien helburu nagusietako bat, hezkuntza-komunitatearekin (ikastetxeak, ikasleak nahiz gurasoak), hirugarren adinekoren kolektiboarekin eta enpresa-munduekin. Harreman horien guztien helburua bera da: euskal gizarte osoak parte hartzea bake eta elkarbizitza iraunkor eta etengabe bat lortu ahal izateko.

Gure eguneroko lanean formulak pentsatu eta bilatu nahi ditugu gizarteak gurekin batera era aktiboan lan egin dezan, ekimenak diseinatzeko eta martxan jartzeko, agente biderkatzaileak sortzeko, eta pertsona guztiak beren eguneroko gatazkei aurre egiteko tresnarik onenak dituztela bermatzeko. Gu bakearen ibaiak gara, eta gure ibaiak gainezka egitea nahi dugu, ibaiertzak emankor bihurtzeko, xiri-miri

sozial eta politikoa sortzeko, izoztutako harremanak urtzeko; halaxe lortuko dugu gure emaria are gehiago handitzea. Gure ibaira ur berriak ekarri nahi ditugu, harreman berriak sortu nahi ditugu, eta lortu nahi duguna lau haizetara zabaltzeko giroa sortu nahi digu. Ibaiaren ur-txorrotak ireki nahi ditugu, gure urek gizarte osoa busti dezaten.

Euskal gizartearen osatzen duten gizarteko zein erakundeetako kide guztiak harremanak eraikitzeke unean, garrantzi berezia eman nahi diegu malgutasuna eta konfiantza bezalako balioei, ezinbestekoak baitira bi norantzetan doazen harreman osasuntsuak eraikitzeke. Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak erabiliko ditugu pentsatzen duguna eta egiten duguna ezagutarazteke eta hedatzeko. Gure helburua gizartearen guztion artean (berr)eraikitzeke prozesuan erreferenteak izatea da. Euskal gizartearen alderdi zabal batek guztiz barneratuta ditu bakearen balioak; horregatik, gure harremanetan gizarteari eta politikari dagokien garrantzia aitortu nahi diegu. Aitorpen horren bitartez, alde batetik, bizitzeko era berriak sortzeko politikan eta gizartearen eragin handiagoa izango dugu eta, beste aldetik, gure erakundearen egoera ekonomikoa egonkorra izango dela bermatu ahal izango dugu, etorkizunean ere lan egiten jarrai dezagun.

Arlo ekonomikoari dagokionez, herri-administrazioekin mendekotasun ekonomikoan oinarrituriko harremana izateari utzi nahi diogu eta, horren ordez, autogestioa indartu nahi dugu, finantzatzeko era horren bitartez lortuko baitugu askatasunez lan egitea, hala ekintzei nola ideiei dagokienez. Beharrezkoa da erakundearen eta sarearen finantzaketa-iturriak dibertsifikatzea. Ez dugu nahi diru-laguntza publikoak finantzaketa-bide gisa erabiltzea oztopo bilaka dadin gure ustez landu behar ditugun arlo horiek lantzeko eta lan hori guk nahi dugun moduan egin ahal izateke. Hori dela eta, ezagun dugun proiektua-formulazioa-gauzatzea-justifikazioa zikloaren mendeko lan-dinamikatik atera nahi dugu. Horretarako, ezinbestekoa da BAEEM osatzen dugun erakundeek prozesu guztietan parte hartzea, hala sorkuntza-prozesuetan nola bake-politiken inguruko erabakiak hartzean. Urteko aurrekontu-zikloetatik haratago joan behar dugu, hauteskunde-zikloetatik haratago, horrela bermatuko baitugu gure proiektuak eta lanak epe ertainera eta luzera aurrera jarraitu ahal izango dutela.

Helmuga: zer ekintza gauza ditzakegu gure ametsa hurbilago egon dadin?

Gauza ditzakegun ekintza zehatzak proposatzeko, Helmuga izeneko fasean Open Space Technology eztabaidarako tresna erabili genuen. Parte-hartzaile guztiak biribilean eseri ginen, eta gure amets kolektibora hurbiltzeko haien ustez zer ekintza ezarri beharko genituzkeen proposatzeko gonbidapena egin genien. Espazioaren irekieran, parte-hartzaileak banan-banan zutitu ziren eta beren proposamenak aurkeztu zituzten. Proposamen guztiak paperean idatzi zituzten eta panel batean jarri zituzten, proposamen guztiak aldi berean ikusi ahal izateke. Proposamen guztiak 1. taulan ikus daitezke.

Proposamenak aurkeztu ondoren, lau taldetan sailkatu genituen, motaren arabera. Gero, kolektiboko kide bakoitzak gehien interesatzen zitzaion proposamena zehazteari ekin zion, eta hasieran proposaturiko ekintzetako bat alde batera utzi genuen, ez baitzegoen hura garatzeko nahikoa kide. Hala, parte-hartzaileek hiru ekintza-proposamen garatu zituzten:

- *Ontziratzte Artibista* elkarrizketaren eta arte-sorkuntzaren bitartez bakea eta giza eskubideak sustatzea xede duen ekimen bat da.
- *Bake-turismoa* ekimenak Euskadik dituen baliabide turistikoek etekina atera nahi die eta, ahal den heinean, baliabide horiek zabaldu nahi ditu, baliabide horien bitartez Euskadiko gatazka-aren, indarkeriaren eta bakearen errealitate konplexua gu bisitatzera datozenei erakusteko.
- *Hitzen Hiria* proposamena indarkeriaz eta gatazkaz beteak egon diren azken hamarkada hauetako elementuetako batzuk alde batera uztearen eta hainbat urtetan gure gizartean egon diren beste batzuk berreskuratzearen beharraz ari den ekimen bat da. Hala, herritarrei dei egiten zaie haien ustez zer ahaztu behar dugun eta zer berreskuratu behar dugun irudikatzeke.

Parte-hartzaileek hau egin behar izan zuten: ekimenen helburuak zehaztu, ekimen bakoitzean zer eduki landu erabaki, nork parte hartuko zuen pentsatu eta bakoitzaren ardura nork hartuko zuen ezarri.

Taldeko lana bukatu ondoren, ekimenak bateratzeko jarduera bat egin genuen parte-hartzaile guztiekin, proposamenak partekatzeko eta alderatzeko.

1. *Ontziratzte artibista*: bakearen aldeko elkarrizketa eta artea.
2. *Hitzen hiria*: Euskadin bakearen bidean aurrerapausoak ematen jarraitzeko beharrezko galderak egitea.
3. *Peace-clip -whatsapp-*: teknologia berriak erabiltzea bakearen aldeko mezuak bidaltzeko.
4. *Kontaketa*, argazki eta film lehiaketa.
5. *Bake-turismoa*.
6. *Horma-irudi parte-hartzaileak*: bakearen aldeko horma-irudiak egitea.
7. *Gipuzkoako memorialab*: memoria gizartean eraikitzekeo elkarrizketa-guneak.
8. *Bilatu zure bakea*, eta elkarbanatu ingurukoekin.
9. *Euskadi hurbilago*: estatuko beste pertsona batzuekin trukea ahalbidetzeko espazioak sortzea.

10. World Café: euskal gatazkari buruz hitz egiteko elkarrizketa-guneak sortzea.
11. Gizartea eraldatzeko gurasoen eskola: gatazkei aurre egiten jakiteko eta bakearen kultura sustatzeko hezkuntza.
12. Nolakoa da gure arteko elkarlana? Gatazkei aurre egiten jakiteko eta bakearen kultura sustatzeko hezkuntza.
13. Tailerrak umeekin, parkean: lankidetzajolasak, antzezpenak, mozorroak, pintura.
14. Udako Euskal Unibertsitatea: Euskadiko gatazkaren eta bakearen errealitatera hurbiltzea.
15. Magisteritza: hezitzaileak prestatzea gai izan daitezen euren ikasleei irakasteko edozein motatako gatazka indarkeriarik erabili gabe konpontzen.
16. Politikariak: alderdi politikoetako kideekin lan egitea, Euskadin bakea eraikitzeko.
17. Bakearen aldeko mezenasgoa: Euskadin bakearen alde lanean ari diren erakundeak finantzatzeko ahaleginak egitea.
18. Askatzea: zer ahaztu behar dugu eta zer berreskuratu behar dugu bakean bizitzeko?
19. Egun esanguratsuak: bakea omentzeko egunetan bakearen aldeko ekimenak antolatzea, besteak beste honako data hauetan: 2016/01/30 (bakearen eta indarkeriarik ezaren eskola-eguna); 2016/09/21 (bakearen eguna); 2016/12/10 (giza eskubideen eguna).


1. Koadroa

Aurretik aipatu den moduan, proposamen hauen garapena ez dugu jaso Ehunberri Koaderno honetan Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren Bakearen Itsasargiaren baitan garatzeko aukera irekita utzi baita.

Elkarrizketaren aldeko jardunaldiaren itxiera.
Hitz egiten duen makila

Jardunaldiei bukaera emateko, *Hitz egiten duen makila* dinamika egin genuen. Parte-hartzaileak biribilean eseri ziren, eta eskuz esku ur-makil bat elkarri pasatu zioten, partaide bakoitzak askatasun osoz topaketari buruzko edozein iritzi adierazteko aukera izan zezan: jardunaldien balorazio orokorra, ikasitakoa, bizitako sentipenak edo sortu zaizkion zalantzak eta galderak. Dinamika horretan, parte-hartzaile guztiek nahi zutena adierazteko aukera izateaz gain, besteek esandakoa arreta osoz entzuteko abagunea ere izan zuten.

Agur honetan, parte hartzaileek azpimarratu zuten pozik zeudela egindako lanarekin, ikasitakoarekin eta sortutako harremanekin. Aipatu zuten egindako ahaleginaren ondorioz nekeak merezi zuela, eta motxila ikaskuntzaz beterik zeramatela. Halaber, adierazi zuten elkarrizketa-topaketak balio izan zuela aurre egiteko Euskadin egun bizi dugun eszeptizismoari, bakea eraikitzeari dagokionez. Kontsolamendua eta ezusteko atsegina, indarberritu eta bakearen aldeko lanean aurrea egiteko. Espazioaren erabilerari dagokionez, azpimarratu zen erakundeek lanean jarraituko dutela 2026ra arte eta gehiago, Euskadin bakerako eta gizarte-justiziarako bidea eraikitzearen alde.



DSS2016.EU